

Hitz gutxi, baina esanahi sakona!

Esaera zaharrak euskaldunok egoerak edo sentimenduak azaltzeko erabiltzen ditugu. Zaharrak dira bai, baina umeon ahotan ere ezin hobeto geratzen dira.

Egin kasu, etxeoak, lagunak, irakasleak edo zuk nahi duzun hori aho zabalik uzteko modurik errazena esaera zaharren bat botatzea da!

Iluntze batean, Mireni lagun batek deitu zion telefonoz:

–Aizu, Miren, joango al gara bihar mendira?

–Ez da ideia txarra, ikusiko dut zer egin. Agur!

Handik ordubetera beste lagun batek hondartzara joatea proposatu zion. Mirenek ez zekien zer egin, aukeratu behar zuen.

Hona Mirenen une hartako egoera azaltzen duen esaera zahar bat:

Txapel batekin bi buru ezin estali



Nekane 4. maila egiten dabil ikastolan. Testuliburuak ez zaizkio batere atsegin; oso gogoz kontra ireki ohi ditu liburu hauek. Baina ipuinak eta abentura liburuak irakurtzen orduak ematen ditu. Zenbat aldiz kendu ote dio aitak gustuko libururen bat lotara joanarazteko!

Zer gertatzen zaio Nekaneri bere gustuko liburuekin?

Gogoko tokian aldaparik ez

Eneko mutiko borrokalaria da. Maiz egiten du borroka ikastolan; ez du ezer behar edozeini paparretik heltzeko. Baina behin irakaslearengana joan eta esan zion:

–Jones jo egin nau. Begira nolako koskorra dudan.

Irakasleak orduan, esaera honekin erantzun zion, «biok ere badaukazue zuek elkarren antza» esanez bezala:

Zozoak beleari ipurbeltz



Aukeratu erantzun zuzena.

1 Zertarako erabiltzen ditugu esaera zaharrak?

- A. Esaten ari garena beste inork ez ulertzeko.
- B. Pertsona edadetuek elkar ulertzeko.
- C. Umeek pertsona edadetuak zirikatzeke.
- D. Gazteek zein zaharrek egoerak eta sentimenduak azaltzeko.

2 Zein zen Mirenen arazoa?

- A. Ez zuela hondartzara joan nahi.
- B. Ez zuela mendira joan nahi.
- C. Bi lekuak gustuko zituela, baina ezin bietara joan.
- D. Buru handia zuela txapela janzteko.

3 Zer adierazten du *Gogoko tokian aldaparik ez esaerak*?

- A. Leku aldapatsuak ez ditugula gogoko.
- B. Gustuko zereginetan ez dugula zailtasunik ikusten.
- C. Toki aldapatsuak gustatzen zaizkigula.
- D. Gustuko zereginetan oztopo asko egoten direla.

4 *Zozoak beleari ipurbeltz*. Aukeratu esaera horren baliokidea.

- A. Hor konpon, Mari Anton!
- B. Astoak mandoari belarriluze.
- C. Kalean uso, etxean otso.
- D. Pilotaria pilotan, errotaria errotan.

5 Aukeratu egia dena.

- A. Esaera zaharrak esaldi luze-luzeak dira.
- B. Esaera zaharrak pertsona famatuek esandako esaldi ezagunak dira.
- C. Esaera zaharrak ez ditugu hitzez hitz ulertu behar.
- D. Esaera zaharrak esaldi arruntak dira.